

24.000 polizia  
15.000 enpresari  
1.250 politikari  
800 espetxetako funtzionarioak  
400 kazetari  
350 epaile eta fiskal  
200 intelektual eta irakasle  
Beste ? pertsona

42.000 pertsona baino  
gehiago zuzeneko jazarpena  
pairatzen ari dira Euskadin  
eta Nafarroan.

**MEHATXUPEAN**

mehatxan **zuri**  
guri

**COORDINADORA  
GESTO POR LA PAZ  
DE EUSKAL HERRIA**



**EUSKAL HERRIKO  
BAKEAREN ALDEKO  
KOORDINAKUNDEA**

Kopuru horri alderdi politiko jakin batzuen egoitzetan egon daitezkeen pertsonena gehitu behar diogu, zeren ETAk bere jopuntuan jarri baititu horiek ere; gainera, mehatxuak publikoki salatu ez dituzten pertsona asko ere badaude.

Zuzeneko mehatxuak pairatu dituen pertsona bakoitzarentzat eta bere senide eta lagunentzat egoerak dakarren larritasunaz gain, jazarpen-indarkeria horrek **elkarbizitzaren oinarriei eraso** nahi die, eta, beraz, **hiritar guztiak elkartu beharko lituzke beraren kontrako erreakzioan**. Askatasuna murriztuta dutenen alde borrokatzea da guztion askatasunaren alde lan egiteko modu bakarra.

Gure inguruko 42.000 auzokide baino gehiago beldurrez bizi dira egunero, ETaren indarkeriazko sareak beraien kontra zuzentzen dituen mehatxu, jazarpen, eraso eta estortsioen bidez. Zenbaitetan, jazarpen-indarkeria horren biktimek isilik eustea nahiago izaten dute, euren pertsona maitatuak ez izutzeko; horrek esan nahi du ezin dutela beren sufrikarioa azaleratu, eta, inolako sostengurik jasotzen ez dutenez, erabateko bakardadean bizi behar dutela jazarpen-egoera hori.

Horixe da jazarpen-indarkeriak aldeztu aurretik erabaki duen estrategia, ETaren atentatu eta hilketek indartua: indarkeriazaleen kontrako ideiak jendaurrean adierazten dituzten guztiak **seinalatu, jazarri eta gizartetik bakartu nahi ditu**. Era horretan, estrategia horrek isilarazi nahi dituen ahotsak ez dira zuzeneko mehatxuak pairatu dituzten pertsonenak soilik, baizik eta baita beste askorenak ere, hots, mehatxupean egon gabe beraien iritzia isilean –mehatxurik ez jasotzeko- gordetzen dituzten pertsonen ahotsak.

**Euskadi eta Nafarroako familia ugari –zaila da kopuru zehatza ematea- etxetik alde egin behar izan dute aspalditik**, euren adierazpen askatasunari ezarritako murrizketengatik edo ETaren estortsioari aurre egiteagatik. Pertsona horiek bereziki bakartuta sentitzen ziren, zeren eta, garai hartan, gure gizartea ez baitzen gai erantzun solidario bat antolatzeke, ezta jazarpen hori jendaurrean salatzeke ere. Gaur egun, zorionez, gizarteak modu irmoan eta etengabe esaten du ETaren desagertzea exijitzen duela. Dena dela, mehatxuak ez dira oraindik ere desagertu; aitzitik, okerrera egin dute eta gero eta pertsona eta kolektibo gehiagorengana iritsi dira. Horrek agerian uzten du ETaren izaera totalitarioa: indarkeria uzteko eskaria zenbat eta sendoagoa den, orduan eta gehiago hedatzen du bere jazarpena, hiritar guztien nahia makurtu nahirik.

Alde horretatik, bada inoiz ahaztu behar ez dugun zerbait: pertsona jakin batzuen aurkako mehatxu etengabeak gure askatasunaren eta gure elkarbizitzaren aurkako eraso sistematikoa islatzen duela. Guztiok gaude nahigabeturik, pertsona konkretu batzuek pairatzen duten jazarpen indarkeria dela-eta. Indarkeria hori ez da abstraktua; aitzitik, askatasun indibidualak nabarmenki murriztera behartzen du, bizia babestu ahal izateko, eta pertsonak euren inguruarekin dituzten harremanak aldarazten ditu. Gaur, milaka pertsonak badaezpadako neurriak hartu behar dituzte, hala nola euren **lagun edo senideekin batera ez joatea, leku jendetsuak saihestea, leku zehatz batzuk ez bisitatzea, ohiko ibilbideak egunero aldatzea, autoen azpian begiratzea....**

Gainera, larritasunak gora egiten du mehatxuak –beti ez dira publikoak izaten– “pertsonalizatu” egiten direnean, **telefono-deien bidez, norberaren edo senideen etxeetan mehatxuzko gutunak jaso, edota enpresaren kontrako presioa eginez.** Halaber, **kaleko pintaden bitartez** egindako mehatxuak ere hartu behar dira kontuan: bertan, alderdi baten siglak edo pertsona baten izena diana baten erdian agertzen da, edota beste esamolde arrunt batzuk irakur daitezke: “zipaio, entzun, pim, pam pum”, “botako zaituztegu”, “Gora ETA (m)”.

Bata bestearen atzean poliki-poliki pilatzen diren mehatxu etengabe horiek dira jazarpen-indarkeria; berau ez da hilketak bezain agerikoa, baina beraren bukaerako “gailurra” hilketak bat izan daitekeela da beraren eraginkortasunaren oinarria. Beste alde batetik, horrelako indarkeriak sortzen duen **erantzun soziala mugatua da** oraindik ere, eta horrek are larriago bihurtzen ditu beronen biktima konkretuen bakardadea eta sufrimendua.

Horregatik, beharrezkoa da **etengabeko elkartasun aktiboa erakustea**, jazarpen-indarkeriak dakartzan isolamendu eta bakardadearen ondorioak arindu ahal izateko. ETAk pertsona jakin batzuek zuzentzen badu geu guztion askatasunaren aurkako murrizketa, geuk guztiok sostengatu behar ditugu pertsona konkretu horiek, ez euren eskubide indibidualak defendatzeko forma bezala soilik, baizik eta baita geure askatasunari eusteko bide bakar gisa ere.

**Zein dira JAZARRITA dagoen pertsona batek bizi ditzakeen egoera konkretuak?**

**Zer egin ote dezaket nik jazarpen horri aurre egiteko eta MEHATXUPEKO pertsona baten sufrimendua nolabait arintzeko?**

**Zaila da esatea, baina Bakearen Aldeko Koordinakundean uste dugu bizipen horietara hurbil gaitzkeela, **jazarpen-indarkeria pairatzen duten pertsona batzuek egindako zenbait adierazpenaren bitartez:****

*“Latza da hau, oso latza. Herrietan batik bat. Begirada batek mila hitzek adina balio du. Eskerrak badirela benetako sostengu-hitzak, mila begiradak baino gehiago balio dutenak”*

*“Alde batetik, ez duzu inolako lagun edo seniderik konprometitu nahi, baina, beste aldetik, eurak zurekin konprometitzea nahi duzu biziki. Kontraesan ikaragarria da, baina benetakoa”*

*“Batzuek Daviden izarra paparrean zintzilik ikusi nahi gaituzte, markatuta, baina aldi berean gardenak, existituko ez bagina bezala”*

*“Herri honetako pertsona asko eta askok esan didate nazka sentitzen dutela hori ikustean (X entzun, pim, pam, pum), baina inor ez da kentzera ausartzen. Faxistek pizten duten beldurraren sua da, eta denok erretzen gaitu”*

Adierazpen horiek garbi erakusten digute jazarpen-indarkeriak sortzen duen bakardade egoera. Inguruneko pertsonak arriskuan jartzeko beldurrak zail bihurtzen du laguntza eskatzea. Horregatik, kontzientzia hartu behar dugu benetako askatasun gabezia eta **geu izan gure sostengua eskaintzeko inizatiba hartzen dugunok. Elkarrikezta, laguntasuna, kezka adieraztea jakinarazitako mehatxuen atzean, pintadak salatu, elkartasun ekialdian parte hartu ...**, horiek guztiak gure esku dauden ekintza xumeak dira, eta pertsona horien sufrimendua arintzen lagunduko dute –izan ere, pertsona horietako batzuk gure ezagunak dira-.

**Hitz egitea –labur bada ere- eta elkartasuna adieraztea,** berez, laguntza baliagarria izan dakieke pertsona horiei beste une batzuetan, mehatxuaren aurrean sentitzen diren uneetan, hain zuzen ere. Horrenbestez, gizarte zibilak gai izan behar du beraien egoera bidegabeak sortzen duen kezka transmititzeko, baita politikan edo lanbide jakin batean aritzeagatik merezi duten balorapen positiboa jakinarazteko ere; halaber, hori guztia elkartasun aktiboa eta sostengua adierazpen duten jarrera koherente bihurtzeko konpromisoa ere hartu behar du gizarteak.

*“Zergatik buruan sartu behar ote diot semeari ez dela komenigarria bere gelakideen aurrean bere aita ertzaina dela esatea? Lan duinak zein diren esan behar ote digute betikoek beste guztioi?”*

*“Aspaldi honetan txartoago pasatzen ari naiz. Familiak ez dit ezer aurpegiratzen, baina hau guztia (Udala) bukatu dadin edo nik utz dezadan nahi dute biziki, faxistek bakean utz gaitzaten, bake tristean”*

*“Guraso batzuek amorraturik deitzen diete euren seme-alabei, nirearengandik urrun daitezen, eta beste guraso batzuegan ikusten ez dudan keinu batez egiten dute; nire alabak zerbait kutsatu ahal balie bezala”*

Adibide horiek garbi erakusten dute ETAREN indarkeriak noraino eraman gaituen aurreiritzi inkontzienteak hartzera, hala nola lanbide jakin batzuk mespretxatzera eta lanbide horietan ari diren pertsonak baztertzeraz edo deskalifikatzeraz. Euren ez duten erantzunkizun bat egozten diegu, zeren ETA baita gizarteak sufritzen duen terrorearen erantzule bakarra.

**Aurreiritzi horietatik libratu behar gara**, inork ez dezan bere lanbidea ezkutatu behar edo bere ideiak isildu behar. Gizarte normalizatu bat lortuko badugu, ezinbestekoa da etorkizunean ere pertsona gehiago dedikatzea lanbide horietara, zeren funtsezkoak baitira zuzenbide estatu demokratikoarentzat. Gainera, **iruzkin insolidarioaren aurrean isiltzen ez bagara**, mehatxupearan dauden pertsonen sufrimendua arinduko dugu, eta horrekin batera, indarkeria legitimazio sozialik gabe uzten lagunduko dugu.



*“Horren txikiteroa den Euskadi honetan, askok ulertu beharko lukete zein gogorra den lagunen arteko poteoari utzi behar izatea. Haiek ez zeuden eroso nire “itzalarekin”; armatua doa, eta hori, diotenez, arriskutsua da”*

Txikiteoko “lagunek” pentsa dezaketena gorabehera, bizkartzainen eginkizuna pertsona baten bizia babestea da. Ez gaitezen engainatu: benetako arriskua pertsona jakin batzuk zelatatzen ibiltzen direnak horiek dira, salatzen dituztenak eta beraien puntu ahulen berri eman dezaketenak, hau da, azken batean, beraien estrategia bortitzari aurren egiten dietenen hiltzaileak.

Ondo jakin behar dugu **meatxupearan dauden pertsonen edo beraien familien ondoan egoteak sostengua emango diela eta, neurri batean, sentitzen duten bakardadea eta abandonu soziala arinduko dituela**. Jasaten duten egoera ikaragarri ezin gehitu diezaiokegu gure axolagabekeriak sortzen duen mina.

Jabe gaitezen beraien egoeraz; izatez, , **gugan ere badu eraginik.**

**Sostengua behar dute.**


Gure arteko guztiok laguntza eman diezaiekegu, indarkeriak bakartu ez ditzan.

**Erantzun dezagun: erakuts diezaiegun gure hurbiltasuna, elkartasun adierazpen bidez. Mehatxupearan dago; ez gara libre.**

*“Uste dut –eta espero dut, ezta?- zentzutasuna eta benetako elkarbizitza demokratikoa nagusituko direla azkenean, eta bidean hainbeste oinaze eta hainbeste egun utzi ditugun guztioi esker, hau guztia, noizbait, iraganeko amesgaizto bat baino ez dela izango”*

MEHATXUA ZURI, ERASOA GURI

jazarpen-indarkeriarik ez, elkarrekin askatasunaren alde



COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA

EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA

[www.gesto.org](http://www.gesto.org)